

DÍA INTERNACIONAL DEL EUSKERA

**Bilbao, 3 de diciembre de
2008**

Euskaltzaindiaren egoitza Bilbon egon da beti, orain dala laurogei urtetik, hasieran Erribera kalean, eta Arbieto eta Elkano kaleetara lekuz aldatu ondoren, azkenean Plaza Barrian geratu zan behin betiko.

Horrela bada, Bilbotik kanpo jaiotako euskaltzain batzuk bertan bizi izan ziran, esaterako, Resurrección M^a de Azkue, Lauxeta, Kirikiño, Nicolás Ormaetxea *Orixe* edo orain dala gitxi zendu den Karmelo Etxenagusia gotzaina.

Euskaltzaindiaren egoitza Bilbon egon dala eta, euskaltzain bilbotarrek garrantzi berezia izan dabe, adibidez, Julio de Urquijo Euskaltzaindiaren lehenengo garaian, Nazario Oleaga frankismoaren urte gogorretan eta, baita be, Gabriel Aresti eta Alfonso Irigoyen.

Gaur egun bilbotar bat da Euskaltzaindiaren burua: Ander Urrutia. Xabier Kintana eta Adolfo Arejita euskaltzain osoak dira eta ohorezko kideak Xabier Gereño, Karmele Rotaetxe eta José Antonio Retolaza.

Eurek garatu daben lanaz, euskarak daukan garrantziaz eta Bilbok izan dauen zereginaz jabeturik dago Udala; hori dala eta, gure hizkuntzaren alde lan handia egin daben pertsonak omendu gura doguz.

Bide batez, Euskaltzaindiaren eta Bilboko Uriaren artean dagoan alkarrekiko eragina gogorarazo gura deutsegu herritarrei.

Eskerrik asko Euskaltzaindiari, Urrutia jaunari, Euskaltzaindiaren kideei eta bereziki, bilbotar guztioi.

La Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia, siempre ha tenido su sede en Bilbao. Desde hace noventa años. Al principio en la calle Ribera y tras algunos traslados a las calles Arbieto y Elcano, se asentó definitivamente en la Plaza Nueva.

Así vivieron en Bilbao académicos que habían nacido en otros lugares, como Resurrección M^a de Azkue, Lauxeta, Kirikiño, Nicolás Ormaetxea *Orixe* o el recientemente fallecido obispo, Karmelo Etxenagusia.

La presencia de la Academia en Bilbao ha hecho que los académicos bilbaínos tengan un peso específico, como por ejemplo, don Julio de Urquijo en la primera época, don Nazario Oleaga en los años más difíciles del franquismo, así como don Gabriel Aresti y don Alfonso Irigoyen.

Ahora un bilbaíno, Ander Urrutia, preside Euskaltzaindia, son miembros numerarios, Xabier Kintana y Adolfo Arejita, y miembros de honor, Xabier Gereño, Karmele Rotaetxe y José Antonio Retolaza.

El Ayuntamiento, consciente de la labor desarrollada por ellos, por la importancia del euskera y por el papel jugado por la villa de Bilbao, quiere rendir homenaje a las personas que tanto han trabajado por nuestra lengua.

Y de paso recordar a la ciudadanía el papel y la influencia recíproca entre Euskaltzaindia y la villa de Bilbao

Gracias a Euskaltzaindia, Sr. Urrutia, y gracias a todos sus miembros en general y a los bilbaínos en particular.

**Iñaki Azkuna
Alcalde de Bilbao**